UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA

2026ko OHIKOA

GEOLOGIA ETA INGURUMEN-ZIENTZIAK

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2026

GEOLOGÍA Y CIENCIAS AMBIENTALES

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek BOST atal ditu. Guztiei erantzun behar diezu.

Lehen atalak ez dauka aukerako galderarik; galdera guztiei erantzun behar diezu. Beste ataletan, bi aukeraren artean hautatu ahal izango duzu.

Atal bakoitzak adierazia du balioa. Erantzunaren koherentzia, zuzentasun gramatikala eta ortografikoa baloratuko dira, baita aurkezpena ere.

Jarraibideetan adierazi baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte.

Ez ahaztu kodea azterketa-koaderno guztietan jartzea.

INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

Este examen tiene CINCO apartados. Debes contestar a cada uno de ellos.

El primer apartado no tiene preguntas opcionales, debes responder a todas las preguntas. En los demás apartados, podrás elegir entre dos opciones.

Cada apartado tiene establecido su valor. Se valorará la coherencia, corrección gramatical y ortográfica de la respuesta, así como la presentación.

En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.

No olvides incluir el código en cada uno de los cuadernillos de hojas de examen.


1. ATALA. ESPERIMENTAZIOA GEOLOGIAN ETA INGURUMEN-ZIENTZIETAN. (2 puntu)

a. Esan zehar-ebaki geologikoan etengune estratigrafikoren bat ikusten den, eta arrazoitu zure erantzuna. **(0,25 puntu)**

b. Deskribatu 5, 13 eta 16 materialak, eta azaldu laburki bakoitzak izan dezakeen ingurune sedimentarioa. **(0,25 puntu)**

c. Adierazi zer era geologiko dagokion material bakoitzari, eta esan transgresioak edo erregresioak gertatu diren. **(0,5 puntu)**


d. Azaldu zehar-ebaki geologiko honen genesia. **(1 puntu)**



Legenda: 1. Miozenoko tupa zurixkak; 2. Miozenoko tupa eta limolita horixkak, hareharrien tartekatzeekin; 3. Miozenoko lutita gorrixkak, hareharri gorrixken tartekatzeekin; 4. Kuaternarioko metaketa alubialak; 5. Miozenoko konglomeratu karetsuak, lutita gorrixka eta hareharri karetsuen tartekatzeekin; 6. Paleozenoko tupa zurixkak; 7. Paleozenoko dolomia zurixkak; 8. Paleozenoko tupa grisak; 9. Goi Kretazeoko kareharri zulotsuak eta bioklastikoak; 10. Goi Kretazeoko hareharriak; 11. Goi Kretazeoko tupa grisak; 12. Goi Kretazeoko kalkarenita bioklastiko nodulutsuak (Lakazinadun kalkarenitak); 13. Goi Kretazeoko tupa eta tupa karetsu grisen txandakapena; 14. Goi Kretazeoko kareharri bioklastikoak, kalkarenitak eta tupa karetsuak; 15. Goi kretazeoko tupa karetsu, kareharri eta tupen txandakapena; 16. Goi Kretazeoko kareharri bioklastiko grisak (Subillako Kareharriak). *(Energiaren Euskal Erakundeak argitaratutako 1:25000 serieko Valdegovia 111-I-III orrialde geologikotik moldatua)*

2. ATALA. PLAKEN TEKTONIKA ETA BARNE-GEODINAMIKA. (2 puntu)
Erantzun bi aukera hauetako bati:
A AUKERA:

a. Plaken tektonikaren testuinguruan, adierazi irudian agertzen den muga mota eta Wilsonen zikloaren zein fasetan dagoen. Arrazoitu zure erantzuna ebidentzia geologikoetan oinarrituta. **(1 puntu)**



Iturria: *Wikipedia*

b. Azaldu plaken tektonikaren eta arriskugarritasun sismikoaren arteko erlazioa. **(1 puntu)**

B AUKERA:

a. Azaldu Hego Amerikako mendebaldeko kostaldean gertatzen den foku sismikoen lerrokatzearen zergatia eta, eskema baten bidez, haien sakonera nola aldatzen den. **(1 puntu)**
b. Ozeano-gandorretik (dortsaletik) zenbat eta urrunago egon, orduan eta handiagoa da sedimentuen lodiera. Zergatik? **(1 puntu)**

3. ATALA. KANPO-PROZESU GEOLOGIKOAK. (2 puntu)

Erantzun bi aukera hauetako bati:

A AUKERA:

a. Zein da irudiko erliebean ikusten den formaren izena? Azaldu forma horren sortze-prozesua. **(1 puntu)**



Iturria: *https://www.urdaibai.eus*

b. Azaldu erliebeari forma ematen dioten kanpo-prozesu geologikoak. **(1 puntu)**

B AUKERA:

a. Zein da irudiko erliebean ikusten den formaren izena? Azaldu forma horren sortze-prozesua. **(1 puntu)**



Iturria: *Wikipedia*

b. Azaldu Euskal Herriko erliebearen modelatzea baldintzatzen duten 3 faktore garrantzitsu. **(1 puntu)**

4. ATALA. MINERALAK, ARROKEN OSAGAIAK / ARROKA IGNEOAK, SEDIMENTARIOAK ETA METAMORFIKOAK. (2 puntu)
Erantzun bi aukera hauetako bati:
A AUKERA:

a. Garai batean ustiatu zen meatze baten sarreran irudian ikus daitekeen minerala aurkitu da. Laborategira bidali ondoren, jakin dugu haren formula kimikoa FeS_2 dela. **(1 puntu)**



Iturria: *https://geotierra.es*

1. Zein da mineralaren izena?
2. Zer ezaugarri ditu?
3. Zein da haren egitura kristalinoa?

b. Mineralak aztertzeko eta identifikatzeko, euren propietateak aztertu ohi dira. Azaldu beheko argazkian ageri den minerala identifikatzeko aztertuko zenituzkeen 4 propietate fisiko. **(1 puntu)**

EHU



Iturria: *Wikipedia*

B AUKERA:

a. Honako bi irudi hauetan, Euskal Herrian oso ohikoa den arroka bat ageri da: hareharria. Azaldu arroka hori eratzeko prozesua. **(1 puntu)**




Iturria: *https://www.panoramicas360.net*



Iturria: *http://bertan.gipuzkoakultura.net*

b. Pirinioetan aurkitu da argazki honetan ageri den arroka, eta hiru mineral identifikatu dira bertan: kuartzoa, feldespatoa eta biotita. Zein arroka da, eta zein da haren sortze-prozesua? **(1 puntu)**




Iturria: *https://geolodiaavila.com*

5. ATALA. LURRAREN GERUZA JARIAKORRAK / BALIABIDEAK ETA HAIEN KUDEAKETA JASANGARRIA. (2 puntu)

Erantzun bi aukera hauetako bati:

A AUKERA:

a. Aztertu honako irudi hau, eta azaldu bertatik zer informazio eskura daitekeen. **(1 puntu)**




Iturria: *https://www.dailyjanakantha.com*

b. Azaldu uraren kutsaduraren 3 eragile eta kutsadura horrek dakartzan ondorioak. **(1 puntu)**

B AUKERA:

a. Honako irudi honetan gainazaleko eguraldi-mapa bat ikus daiteke. **(1 puntu)**



Iturria: *https://www.euskalmet.euskadi.eus*

1. Azaldu horrelako mapetan eguraldia adierazteko erabiltzen diren eta mapa honetan agertzen diren elementuak.
2. Mapan oinarrituta, egin ezazu hurrengo orduetarako Euskal Herriko eguraldiaren gutxi gorabeherako iragarpena. Prezipitaziorik egon daiteke? Haizeak nondik joko du nagusiki?

b. Azaldu Lurreko geruza jariakorrekin lotura duten 3 energia-iturri berriztagarri. **(1 puntu)**

EHU